PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Orgi Basoko Hobiak

Orgi Basoko Hobiak

Ultzaman daude, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Ultzama non dagoen ikus dezakezu.

1936. urteko Estatu Kolpetik aurrera frankistek
preso asko kartzeletatik ateratzen zituzten
eta Nafarroako leku ezberdinetara eramaten zituzten
bertan hil eta lurperatzeko.
Leku hauek herrietatik aldenduak zeuden.

Presoak hiltzeko eramaten zituzten lekuetako bat
Orgi basoa zen.

Pertsona batzuek kontatzen dutenez
1936ko azaroan
Iruñeako kartzelatik atera zituzten
zenbait preso hil eta lurperatu zituzten.
Ez dakite zenbat pertsona hil zituzten han.

2011. eta 2012. urteetan
Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarteak 1936
Aranzadi Zientzia Elkarteari
pertsona hauen gorpuzkiak bilatzeko
eskatu zion.
Ez zituzten aurkitu.

2021. urtean Nafarroako Gobernuaren
Desobiratze Programaren barruan
berriz saiatu ziren gorpuzkiak aurkitzen
eta ezta ez zuten lortu.

Hemen Orgi basoaren argazki bat ikus dezakezu:

